AZPEITIKO UDALA

Azpeitiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko «4.1 Santutxo» eta «1.2 Done Jakue 3» azpieremuei dagokien Xehetasun Azterlanaren behin betiko onespena (esp. zk.: 2026PLAN0031).

Azpeitiko Udaleko Herriaren Gobernu Batzordeak, 2026ko irailaren 15ean egindako bilkuran, behin betiko onartu du 2026ko uztaileko Xehetasun Azterlana, Azpeitiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko «4. Arana Ingurua» hirigintza-eremuko «4.1 Santutxo» azpieremuari eta «1. Alde Zaharra» hirigintza-eremuko «1.2 Done Jakue 3» azpieremuari dagokiena. Dokumentua Azpeitiko Udalak sustatu du, eta Josu Aranguren Etxeberria ingeniariak eta Jon Orue-Etxebarria Iturri abokatuak osatutako lantaldeak idatzi du.

Xehetasun Azterlanaren helburua da Udalbatzak 2023ko martxoaren 7an behin betiko onartutako eta 2023ko martxoaren 29ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako Plan Bereziak ezarritako antolamendu xehatuaren zenbait aurreikuspen egokitzea, bidearen sestrak eta eraikinaren ezarpen-kotak doituz, bai eta beheko solairuaren eta sotoko solairuaren artean aparkaleku-erabileren eta erabilera osagarrien banaketa ere.

Xehetasun Azterlana Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 98. artikuluan xedatutakoaren arabera izapidetu da. Alkatetzaren 2026ko uztailaren 29ko Dekretuaren bidez hasierako onespena eman ondoren, hogei egunez jendaurrean jarri zen, 2026ko abuztuaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 145. zenbakian, eta 2026ko abuztuaren 3ko El Diario Vasco egunkarian argitaratutako iragarkien bidez, bai eta Udalaren egoitza elektronikoan eta iragarki-taulan ere. Jendaurreko informazio-aldian ez zen alegaziorik aurkeztu.

Aurrekoa eta udaleko zerbitzu teknikoek eta juridikoek emandako aldeko txostenak ikusita, Herriaren Gobernu Batzordeak, 2026ko irailaren 15ean egindako bilkuran, Xehetasun Azterlana behin betiko onartzea erabaki zuen.

Xehetasun Azterlana Gipuzkoako Foru Aldundiko Hirigintza Plangintzaren Administrazio Erregistroan gordailutu da, eta dokumentu osoa kontsultagai dago Azpeitiko Udalaren egoitza elektronikoko Hirigintza atalean.

Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen da, onartutako dokumentuan jasotako arau-izaerako zehaztapenak barne.

Erabaki hau behin betikoa da eta buru eman dio administrazioko bideari. Konforme egon ezean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa sar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizi Auzitegi Nagusiak Bilbon duen administrazioarekiko Auzietako Salan, erabaki hau azkeneko aldiz argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera bi hilabete joan aurretik.

Azpeitia, 2026ko irailaren 18a.—Nagore Alkorta Elorza, alkatea. (6161)

AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA

Aprobación definiva del Estudio de Detalle correspondiente a los subámbitos «4.1 Santutxo» y «1.2 Done Jakue, 3» de Plan General de Ordenación Urbana de Azpeitia (exp. ref.: 2026PLAN0031).

La Junta de Gobierno Local en sesión celebrada el día 15 de septiembre de 2026 ha aprobado con carácter definitivo el Estudio (julio 2026), relativo a los subámbitos «4.1 Santutxo» del Ámbito Urbanístico «4 Arana Ingurua» e «1.2 Done Jakue, 3» del Ámbito Urbanístico «1 Alde Zaharra del Plan General de Ordenación Urbana de Azpeitia promovido por el Ayuntamiento de Azpeitia y redactado por el equipo de trabajo formado por el ingeniero Josu Aranguren Etxeberria y el abogado Jon Orue-Etxebarria Iturri.

El Estudio de Detalle tiene por objeto adaptar determinadas previsiones de la ordenación pormenorizada establecida por el Plan Especial aprobado por el Ayuntamiento Pleno el 7 de marzo de 2023 y publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 29 de marzo de 2023, mediante el reajuste de las rasantes del vial y de las cotas de implantación de la edificación, así como de la distribución de los usos de aparcamiento y usos auxiliares entre las plantas baja y sótano.

El Estudio de Detalle se ha tramitado de conformidad con lo dispuesto en el artículo 98 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo. Aprobado inicialmente mediante Decreto de Alcaldía de 29 de julio de 2026, fue sometido a información pública durante veinte días mediante anuncios publicados en el Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 145, de 4 de agosto de 2026, en El Diario Vasco de 3 de agosto de 2026, así como en la sede electrónica y en el tablón de anuncios municipal. Durante el periodo de información pública no se presentaron alegaciones.

A la vista de lo anterior y de los informes favorables emitidos por los servicios técnicos y jurídicos municipales, la Junta de Gobierno Local, en sesión de 15 de septiembre de 2026, acordó aprobar definitivamente el Estudio de Detalle.

El Estudio de Detalle ha sido depositado en el Registro Administrativo de Planeamiento Urbanístico de la Diputación Foral de Gipuzkoa y el documento íntegro se encuentra disponible para su consulta en la sección de Urbanismo de la sede electrónica del Ayuntamiento de Azpeitia.

Se procede a publicar el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, incluyendo las determinaciones de carácter normativo contenidas en el documento aprobado.

El precedente acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa, pudiendo interponerse contra el mismo recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su última publicación.

Azpeitia, a 18 de septiembre de 2026.—La alcaldesa, Nagore Alkorta Elorza. (6161)

EK\CV GAO-I-2026-06161

Onartutako dokumentuan jasotako zehaztapenak

1. Erabileren banaketa.

-1 sotoko solairua etxebizitzen erabilera osagarrietarako erabiliko da, hau da, garaje eta trastelekuetarako. Beheko solairuan, berriz, aparkaleku publikoa, bizikletak eta haurren kotxeak uzteko lokalak, hondakinen gela eta etxebizitzei lotutako gainerako trastelekuak jarriko dira. Era berean, solairu horretan garaje-plaza bat prestatuko da, -1 sotoko solairuan kokatu ezin izan den etxebizitzarako.

2. Kotak eta sestrak.

Santutxo auzoko 8, 9, 10 eta 11 zenbakidun eraikinen aurretik igarotzen den bidea 96,66 kotan iritsiko da 4.1 azpieremura eta, hasieran % 3,6ko maldarekin eta gainerako trazaduran % 4,6ko maldarekin, lurzati eraikigarriaren aurretik igaroko da, harik eta 93,40 kotan zaku-hondoa eratu arte.

-1 sotoko solairua 93,50 kotan kokatuko da, beheko solairua 96,75 kotan eta lehen solairua 101,25 kotan. Hortik aurrera, gainerako solairuak 3,00 metro gorago kokatuko dira.

Sestrak eta kota berriak 0.01 «Lerrokaduren eta sestren proposamena» eta 0.02 «Sekzioen proposamena» antolamendu-planoetan jasotzen dira.

Determinaciones contenidas en el documento aprobado

1. Distribución de usos.


El sótano -1 se destinará a los usos auxiliares de las viviendas (garajes-trasteros), mientras que en la planta baja se habilitará el aparcamiento público, locales para aparcamiento de bicicletas y coches de niño, cuarto de basuras y el resto de trasteros para las viviendas. Asimismo, en esta planta se habilitará una plaza de garaje para la vivienda que no ha sido posible ubicar en el sótano -1.

2. Cotas y rasantes.


El vial que discurre por delante de los edificios números 8, 9, 10 y 11 del barrio de Santutxo alcanzará el subámbito 4.1 en la cota 96,66 y, mediante una pendiente del 3,6 % al inicio y del 4,6 % en el resto del trazado, discurrirá por delante de la parcela edificable hasta el punto en el que se genera el fondo de saco, situado en la cota 93,40.

El sótano -1 se asentará sobre la cota 93,50, la planta baja sobre la cota 96,75 y la planta primera sobre la cota 101,25. A partir de esta última, las restantes plantas se situarán 3,00 metros más arriba.

Las nuevas rasantes y cotas quedan reflejadas en los planos de ordenación 0.01 «Propuesta de alineaciones y rasantes» y 0.02 «Propuesta de secciones».



EK\CV GAO-I-2026-06161



EK\CV GAO-I-2026-06161